

## **ELBIRA ZIPITRIA ZENTROAREN ARAUTEGIA**

(Gipuzkoako Campuseko Batzarrak onartua 2016ko otsailaren 19ko bileran)

## **REGLAMENTO DEL CENTRO ELBIRA ZIPITRIA**

(Aprobado por la Junta de Campus de Gipuzkoa en su sesión de 19 de febrero de 2016)

### **ZIOEN AZALPENA**

Elbira Zipitria Zentroa da Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (urrerantzean UPV/EHU) Gipuzkoako Campusean duen erakin bat. Bertan daude Gizarte Berrikuntzako Zentroa, irakaskuntzarako guneak, Esperimentzia Gelak, USACen egoitza eta Euskara Zerbitzua. Zehatz esanda, honako hauek daude zentroan:

- Gizarte Berrikuntzako Zentroa (urrerantzean GBZ), UPV/EHUk sustatua EUSKAMPUS-Nazioarteko Bikaintasun Campusa estrategiaren barruan. Estrategia horren bitartez sortu nahi da hezkuntza, ikerkuntza, transferentzia eta berrikuntzarako polo bat, gizartean eragina eta nazioartean garrantzia izango duena.

- Irakaskuntzarako guneak, besteak beste UPV/EHUko ikasleei zuzendutako eskolak emateko erabiltzen diren ikasgelak.

- Esperimentzia Gelak, non pertsona helduentzako irakaskuntzako jarduera betetzen den, bai eta pertsona horien garapen soziokulturala bultzatzeko jarduerak ere.

- USAC (University Studies Abroad Consortium) erakundearen egoitza. Eskolak ematen zaizkie Estatu Batuetako ikasleei, UPV/EHUn eta USACen arteko

### **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

El Centro Elbira Zipitria es un edificio del Campus de Gipuzkoa de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante, UPV/EHU o "la Universidad") en el que se concentran el Centro de Innovación Social, espacios asignados a la docencia, a las Aulas de la Experiencia, a la Sede del USAC y al Servicio de Euskera. En concreto, el Centro da cabida a:

- Centro de Innovación Social, en adelante "CIS", promovido por la UPV/EHU en el marco de la estrategia EUSKAMPUS-Campus de la Excelencia Internacional. Dicha estrategia está orientada a crear un polo de formación, investigación, transferencia e innovación de relevancia internacional con impacto local.

- Espacios asignados a la docencia, contando con aulas en las que se imparten clases destinadas a alumnado universitario de la UPV/EHU.

- Aulas de la Experiencia, en las que se imparten enseñanzas y se desarrollan actividades para la promoción y el desarrollo sociocultural de las personas mayores.

- La Sede del USAC (University Studies Abroad Consortium). Impartiéndose docencia a grupos de estudiantes norteamericanos que estudian

lankidetza hitzarmenaren bidez hizkuntza eta kultura, artea, ekonomia eta enpresa administrazioa ikastera etortzen direnei.

- Euskara Zerbitzua, besteak beste hobekuntza ikastaroak eta euskara ikasteko diru laguntzak eskaintzen dituena. Horrez gain, aholkuak ematen ditu eskolak, ikasmateriala eta argitalpenak prestatzeko.

- Unean-uneko premieei erantzuteko erabil daitezkeen guneak.

2011ko otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuak, UPV/EHUnen Estatutuak onartzen dituenak, 124.2.d) artikuluan dioenaren arabera, campusen eskumena da kudeatzea beren eremuan unibertsitateko kide guztiak erabiltzeko diren baliabide eta azpiegiturak eta irakaskuntzan eta ikerketan erabiltzeoak direnak. Elbira Zipitria Zentroa Gipuzkoako Campusaren azpiegitura horietako bat da eta, horregatik, beharreko ikusi da arautegi hau prestatzea, erreferentea izan dadin zentroaren funtzionamendurako eta erabiltzaileekiko harremanetarako.

Azken finean, Elbira Zipitria Zentroak unibertsitateko kideen elkargunea eta lankidetzarako lekua izatera heldu nahi du, GBZen jardueraren bitartez, ezagutzaren garapena eta eragile heterogeneoekin elkarlanean aritzea sustatzen baitu hainbat mailatan (gizarte mailan, herri mailan, lurralte mailan eta nazioartean).

Horregatik guztiagatik, ikusita Gipuzkoako Campuseko errektoreordearen proposamena,

lengua y cultura, arte, economía, administración de empresas en virtud de un acuerdo de colaboración suscrito por la UPV/EHU y USAC.

- Servicio de Euskera, que ofrece entre otras actividades cursos de perfeccionamiento y/o subvenciones para aprender euskera. Asimismo, facilita asesoría para la preparación de clases, material docente o publicaciones.

- Espacios disponibles susceptibles de aprovechamiento para necesidades puntuales.

En función de lo establecido en el artículo 124.2 d) del Decreto 17/2011, de 15 de febrero, por el que se aprueban los Estatutos de UPV/EHU, es competencia de los Campus gestionar los recursos e infraestructuras de uso compartido y de apoyo a la docencia e investigación existentes en su ámbito. El Centro Elbira Zipitria es precisamente una de tales infraestructuras del Campus de Gipuzkoa, por lo que se ha estimado oportuno elaborar el presente Reglamento con el fin de crear un marco de referencia para el funcionamiento del mismo y las relaciones con sus diferentes usuarios.

En suma, el Centro Elbira Zipitria aspira a convertirse en un lugar de encuentro y colaboración de la comunidad universitaria mediante la actividad del CIS que impulsa el desarrollo del conocimiento y fomenta la colaboración con agentes heterogéneos, desde la perspectiva social, local, territorial e internacional.

Por todo ello, a propuesta de la Vicerrectora de Campus de Gipuzkoa, previa deliberación y aprobación en su

Gipuzkoako Campuseko Batzarrak, UPV/EHUren Estatutuetako 294.2.h) artikuluak emandako eskumenen babesean, bai eta Gipuzkoako Campuseko Batzarraren Arautegia EHAAn argitaratzeko agindua eman zuen UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2012ko azaroaren 19ko Erabakiko 9.1.h) artikuluak emandakoen babesean ere, arautegia aztertu eta onartu ondoren 2016ko otsailaren 19ko bileran, honako hau xedatu du:

### **ELBIRA ZIPITRIA ZENTROAREN ARAUTEGIA**

#### **I. TITULUA.- ZENTROAREN KOKAPENA ETA XEDEA**

##### **1. artikulua.-**

1. Elbira Zipitria Zentroa UPV/EHUK Gipuzkoako Campusean duen erakin bat da. Bertan daude Gizarte Berrikuntzako Zentroa, irakaskuntzarako guneak, Esperientzia Gelak, USACen egoitza eta Euskara Zerbitzua.
- 2.- Zentroa Donostian dago, Ondarreta pasealekuuko 18. zenbakian (20018 – Gipuzkoa).
- 3.- Eraikinaren erabilera eta funtzionamendua bat etorriko dira arautegi honetan xedatutakoarekin, bai eta aplikagarriak diren unibertsitate eta administrazio arautegiek diotenarekin ere.
- 4.- Arautegi honetan, Elbira Zipitria Zentroa aipatzeko, izen osoa zein "zentroa" hitza erabiliko da.

##### **2. artikulua.-**

Elbira Zipitria Zentroan honako hauek daude:

- 1.- Gizarte Berrikuntzako Zentroa.

reunión celebrada el día 19 de febrero de 2016, la Junta de Campus de Gipuzkoa, en el ejercicio de la competencia que le otorga el artículo 194.2ºh) de los Estatutos de UPV/EHU y el artículo 9.1ºh) de la Resolución de 19 de noviembre de 2012, de la Secretaría General de UPV/EHU, por la que se ordena la publicación en el BOPV del Reglamento de la Junta de Campus de Gipuzkoa, aprueba y dispone el siguiente

### **REGLAMENTO DEL CENTRO ELBIRA ZIPITRIA**

#### **TÍTULO I.- UBICACIÓN Y OBJETO DEL CENTRO**

##### **Artículo.- 1**

1. El Centro Elbira Zipitria es un edificio integrado en el Campus de Gipuzkoa de UPV/EHU, en el que se concentran el Centro de Innovación Social, espacios asignados a la docencia, a las Aulas de la Experiencia, a la Sede del USAC, al Servicio de Euskera.
2. Está situado en el Paseo de Ondarreta, 18, 20018, de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).
3. El régimen de su utilización y funcionamiento se ajustará a lo previsto en este Reglamento y, en su caso, a la normativa universitaria y administrativa que sea de aplicación.
4. A lo largo de este Reglamento se hará referencia al Centro Elbira Zipitria de manera indistinta con su denominación completa o con el término el "Centro".

##### **Artículo.- 2**

El Centro Elbira Zipitria alberga:

1. El Centro de Investigación Social.

- |  |  |
|--|--|
| 2.- Irakaskuntzarako guneak.<br>3. Esperientzia Gelak<br>4. USACen egoitza<br>5. Euskara Zerbitzua<br>6. Toki orokorrak. | 2. Espacios asignados a la docencia.<br>3. Aulas de la Experiencia.<br>4. La Sede del USAC<br>5. Servicio de Euskera.<br>6. Zonas Comunes. |
|--|--|

**3. artikulua.-**

Erabilera eta jarduera berriak zehaztu ahal izango dira, arautegi honen babesean, Elbira Zipitria Zentroan eramateko aurrera.

**Artículo.- 3**

En el marco de la presente normativa se podrán definir nuevos destinos, contenidos y actividades para su ubicación en el Centro Elbira Zipitria.

**II. TITULUA.- GUNEEN BANAKETA ETA ARAUBIDEA**

**LEHENENGO KAPITULUA.- IRAKASKUNTZARAKO GUNEAK**

**4. artikulua.-**

Irakaskuntzarako guneen kudeaketa modu partizipatiboan egiteko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, Elbira Zipitria Zentroa erabiltzen dutenek osatua.

**TÍTULO II.- ORGANIZACIÓN DE ESPACIOS Y SUS REGÍMENES**

**CAPÍTULO PRIMERO.- ESPACIOS ASIGNADOS A LA DOCENCIA**

**Artículo.- 4**

Al objeto de realizar una gestión participativa de la asignación de los espacios docentes, se ha establecido una Comisión de Seguimiento a la que se incorporan los centros usuarios del Centro Elbira Zipitria.

**5. artikulua.-**

Irakaskuntzarako guneak ikasturteka esleituko dira, zehaztuta lauhileko bakoitzeko esleipena, eta esleipen espezifikoak egin ahal izango da azterketen aldirako. Nolanahi ere, zentroko guneak esleitzeko eskaeraren arrazoia izango da ikastegiak beteta izatea bere espacio guztiak, bai goizez bai arratsaldez.

**Artículo.- 5**

La asignación de espacios docentes se realizará por cursos académicos, especificando la diferente asignación cuatrimestral y pudiéndose realizar una asignación específica para el periodo de exámenes. En cualquier caso, la solicitud de asignación de espacios en el Centro debe fundarse en la ocupación completa de los propios espacios del centro tanto en horario de mañana como de tarde.

**6. artikulua.-**

Guneak esleitzerakoan lehentasuna izango dute graduko ikasketen eskola ofizialak eta talde berriak, ikasle askoko taldeen banaketetatik edo irakats eskaintzaren zabaltzetik sortuak.

**Artículo.- 6**

En la asignación de espacios tendrá prioridad la docencia oficial de titulaciones de Grado, así como los nuevos grupos derivados de desdobles de aulas masificadas o de la ampliación de la oferta docente.

**BIGARREN KAPITULUA.- GIZARTE  
BERRIKUNTZAKO ZENTROA**

**7. artikulua.-**

Gizarte Berrikuntzako Zentroari egingo zaion esleipena iraunkorra izango da eta Gipuzkoako Campuseko errektoreordearen erabakiaren bidez egingo da, SINNERGIAK gune autonomoa eratzeko EUSKAMPUS FUNDazioak eta EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK 2012ko martxoaren 7an sinatu zuten hitzarmen spezifikoaren babesean.

**HIRUGARREN  
ESPERIENTZIA GELAK**

**KAPITULUA.-**

**8. artikulua.-**

Esperientzia Gelei irakaskuntzarako esleituko zaizkion guneak ikasturterako izango dira, eta esleipena egingo da zentroko Jarraipen Batzordearen iritzia entzun eta gero.

**LAUGARREN KAPITULUA.- EUSKARA  
ZERBITZUA**

**9. artikulua.-**

Euskara Zerbitzuari Gipuzkoako Campuseko errektoreordearen erabakiaren bidez egingo zaion esleipena.

**BOSGARREN  
OROKORRAK**

**KAPITULUA.- TOKI**

**10. artikulua.-**

Toki orokorrak dira eraikinaren beraren administrazio, erabilera eta ustiapenerako gordeak. Toki horietako bat da zentroaren aparkalekua, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak zehaztuko dituen

**CAPÍTULO SEGUNDO.- CENTRO DE  
INNOVACIÓN SOCIAL**

**Artículo.- 7**

El Centro de Innovación Social será asignado con carácter permanente por resolución del o la Vicerrectora de Campus de Gipuzkoa en virtud del Convenio específico entre EUSKAMPUS FUNDAZIOA y la UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA en relación con la creación de la unidad autónoma SINNERGIAK de 7 de marzo de 2012.

**CAPÍTULO TERCERO.- AULAS DE LA  
EXPERIENCIA**

**Artículo.- 8**

La asignación de espacios docentes de las "Aulas de la Experiencia" se realizará por cursos académicos, oída la Comisión de Seguimiento del Centro.

**CAPÍTULO CUARTO.- SERVICIO DE  
EUSKERA**

**Artículo.- 9**

El Servicio de Euskera será asignado en virtud de resolución de la Vicerrectora de Campus de Gipuzkoa.

**CAPÍTULO QUINTO.- ZONAS COMUNES**

**Artículo.- 10**

Las zonas comunes son aquellos espacios vinculados al uso, aprovechamiento y administración del propio edificio. Una de tales zonas es el aparcamiento del Centro que se regirá por los criterios de funcionamiento que sean establecidos al

funtzionamendu irizpideen arabera erabiliko dena.

#### **11. artikulua.-**

Era berean, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak erabaki ahal izango du erabiltzea eraikineko guneak UPV/EHUren interesekoak diren beste helburu batzuetarako, betiere kontuan hartuta Gipuzkoako Campuseko Batzarrak 2014ko abenduaren 19an onartu zuen Gipuzkoako Campuseko Barneko eta Kanpoko Guneen Unean Uneko Erabilerarako Arautegiak dioena.

#### **III. TITULUA.- ERAIKINAREN ERABILTZAILE GUZTIENTZAKO ARAUAK**

#### **12. artikulua.-**

Elbira Zipitria Zentroan kokatutako egitura eta erakundeek lagunza eman beharko dute Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak eta zentroko Jarraipen Batzordeak eskatzen dizkieten gaietan, elkarbizitza orekatu eta onaren mesedetan.

#### **13. artikulua.-**

Erabiltzaile bakoitzak esleituta izango dituen guneak arautegi honetan zehaztutako jardueretarako baino ez dira erabiliko. Esleitutako tokia beste zerbaitetarako erabili nahi izanez gero, horren berri eman beharko zaio Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzari, eta berak erabakiko du baimena eman ala ez.

#### **14. artikulua.-**

UPV/EHUk aseguru polizak ditu kontratatuta, eraikinarekin zerikusia daukaten arriskuetarako eta

efecto por el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.

#### **Artículo.- 11**

Asimismo, el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa podrá determinar el uso de espacios disponibles en el edificio para otros fines que resulten de interés para UPV/EHU en función, en su caso, de lo establecido en el "Reglamento de uso puntual de espacios interiores y exteriores del Campus de Gipuzkoa", aprobado por la Junta de Campus de Gipuzkoa de 19 de diciembre de 2014.

#### **TÍTULO III.- NORMAS COMUNES PARA LOS USUARIOS DEL EDIFICIO**

#### **Artículo.- 12**

Las diferentes estructuras y entidades ubicadas en el Centro Elbira Zipitria deberán colaborar en aquellas cuestiones que se les requiera desde el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa y la Comisión de seguimiento del Centro, en aras a una convivencia armoniosa y satisfactoria para todos.

#### **Artículo.- 13**

Los espacios propios asignados a cada usuario serán destinados exclusivamente a las actividades consignadas en este Reglamento. En el supuesto de querer realizar algún cambio en el destino de los espacios asignados, los interesados deberán ponerse en contacto previamente con el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, el cual decidirá si autorizar dicho cambio o denegarlo.

#### **Artículo.- 14**

La UPV/EHU tiene contratadas sendas pólizas de seguro que cubren los riesgos relacionados con el edificio y con las

unibertsitateko langileek zentroan egiten dituzten jarduera arruntekin zerikusia daukatenetarako. UPV/EHUk kontratatutako polizetan ez dira sartzen erabilera eta funtzionamendu okerrek edo arduragabeek eragindako kalte eta galerak, eta egileek hartuko beharko dituzte beren gain konponketak.

**IV. TITULUA.- ZUZENDARITZA,  
ADMINISTRAZIO  
AHOLKULARITZA ORGANOAK**

**15. artikulua.-**

Zentroko zuzendaria

1.- Gipuzkoako Campuseko errektoreordearen erabaki batek zehaztuko du nor izango den zuzendaria.

2.- Zuzendariak eginkizun hauek izango ditu, eraikinaren xedearekin lotuak:

a) Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren, zentroko Jarraipen Batzordearen eta eraikineko erabiltzaileen arteko solaskidea izatea.

b) Zentroaren kudeaketa eta administrazio arrunta zuzentzea, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren irizpideei jarraiki, horrena baita azken finean zentroaren erantzukizuna.

c) Zentroko Jarraipen Batzordearen erabakiak aplikatu eta betetzea.

d) Zentroan egindako jardueren urteko memoria egitea, eta memoria horri buruzko informazioa ematea Gipuzkoako Campuseko Batzarrean.

e) Zentroaren jarduerak sustatzea eta etengabeko hobekuntza bultzatzea.

f) Bermatzea bete egiten direla zentroko gune guztieta laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrok, eta beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea.

actividades ordinarias que el personal de la Universidad realice en el CENTRO.

Los daños y perjuicios producidos por actos de uso y funcionamiento manifiestamente inadecuado o negligente no serán cubiertos por las pólizas contratadas por UPV/EHU y su reparación se imputará al autor o autores de los mismos.

**TÍTULO IV.- ÓRGANOS DE DIRECCIÓN,  
ADMINISTRACIÓN Y ASESORÍA**

**Artículo.- 15**

El o la Directora del Centro

1. La Dirección del Centro se determinará por resolución del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.

2. Las funciones del o la Directora, relacionadas con el objeto propio del edificio, serán las siguientes:

a) Desarrollar la interlocución entre el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, la Comisión de Seguimiento del Centro y los usuarios del edificio.

b) Dirigir la gestión y administración ordinaria del Centro siguiendo las directrices del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, sobre el cual recae la última responsabilidad del Centro.

c) Aplicar y ejecutar los acuerdos de la Comisión de Seguimiento del Centro.

d) Asumir la elaboración de la Memoria anual de las actividades desarrolladas en el Centro y su presentación como informe en la Junta de Campus de Gipuzkoa.

e) Promocionar las actividades del Centro e impulsar su mejora continua.

f) Velar por las condiciones en materia de prevención de riesgos laborales de todas las dependencias del Centro adoptando las medidas oportunas.

- |  |  |
|--|--|
| <p>g) Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak zehaztu ditzakeen bestelakoak.</p> <p>3. Zentroko zuzendariak ez du jasoko ordainsaririk kargu horretan aritzeagatik.</p> | <p>g) Otras que sean definidas por el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.</p> <p>3. El cargo del o la Directora del Centro no será remunerado.</p> |
|--|--|

#### **16. artikulua.-**

##### **Zentroko Jarraipen Batzordea**

1.- Zentroko Jarraipen Batzordeak zentroaren antolaketa eta funtzionamendua koordinatuko ditu eta arlo horietan egon daitezkeen arazoak ebatzikio ditu. Zehatz esanda, proposamenak egingo dizkio Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzari, onar ditzan, gai hauen inguruan:

- a. Zentroko guneak erabiltzeko irizpideak, kontuan hartuta aplikagarriak diren unibertsitate arautegietan xedatutakoa.
- b. Irakaskuntzarako guneak esleitzeko irizpideak.
- c. Denei eragiten dieten arazoak identifikatuko ditu, eta arazo horiek konpontzeko bideak aztertu.
- d. Zentroko zerbitzuaren funtzionamendu eta erabilerari buruzko txostena egingo du ikasturtero, eta gomendatuko diren hobekuntza neurriak proposatu eta ebaluatuko ditu.
- e. Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak eska diezazkioken bestelakoak.

2.- Zentroko Jarraipen Batzordeak osakide hauek ditu:

- a) Gipuzkoako Campuseko errektoreordea, edo hark bere ordez izendatuko duen campuseko taldeko kidea. Batzordeko burua izango da eta kalitate botoa izango du. Gainera, zentroko zuzendaria izango da.
- b) Gipuzkoako Campuseko

#### **Artículo.- 16**

##### **La Comisión de Seguimiento del Centro**

1. La Comisión de Seguimiento del Centro tiene por función coordinar y resolver cuestiones organizativas y de funcionamiento del Centro y concretamente define y realiza propuestas al Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa para su aprobación sobre:

- a. Los criterios de uso de los espacios del Centro, dentro del marco de la normativa universitaria que sea de aplicación.
- b. Los criterios de asignación de espacios destinados a la docencia.
- c. Identificar los problemas comunes, analizando las vías para su resolución.
- d. Elaborar por cada curso académico un informe sobre el uso y funcionamiento del Servicio del Centro, proponiendo y evaluando las medidas de mejora que se aconsejen.
- e. Otras cuestiones bajo requerimiento del o la Vicerrectora de Campus de Gipuzkoa.

2. La Comisión de Seguimiento del Centro estará integrado por:

- a) El o la Vicerrectora de Campus de Gipuzkoa o persona del equipo de Campus en quién delegue, que la preside con voto de calidad y que además será el o la Directora del Centro.
- b) El o la Vicegerenta de Campus de

gerenteordea.

c) Elbira Zipitria Zentroan eskolak ematen dituzten ikastegietako dekano eta zuzendariak eta ataletako koordinatzaileak; edo, bestela, ikastegian edo atalean akademia antolakuntzako alorraren ardura daukan pertsona.

d) Campuseko Errektoreordetzako administratzailea.

e) Esperientzia Geletako zuzendaria.

3.- Zentroko zuzendariak bilerak antolatuko ditu eta aktak egingo ditu.

4.- Zentroko Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartu ahal izango dute beste pertsona batzuk, aztertuko diren gaien arabera gonbidatuak izango direnak.

5.- Zentroko Jarraipen Batzordea gutxienez urtean bi aldiz bilduko da. Deialdia Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak egingo du.

6.- Zentroko Jarraipen Batzordeko kideek ez dute jasoko ordainsaririk kargu horietan aritzeagatik.

Gipuzkoa.

c) Los y las Decanas, los y las Directoras de los Centros y los y las Coordinadoras de Sección con docencia asignada en el Centro Elbira Zipitria, o en su caso la persona responsable del Centro o Sección en materia de Ordenación Académica.

d) El o la administradora de Vicerrectorado de Campus.

e) El o la Directora de las Aulas de la experiencia.

3. El o la Directora de Centro, se encargará de organizar las reuniones y levantar acta de las mismas.

4. En las reuniones de la Comisión de Seguimiento del Centro podrán participar otras personas que sean invitadas en razón del contenido a tratar.

5. La Comisión de Seguimiento del Centro se reunirá como mínimo dos veces al año mediante convocatoria del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.

6. El cargo de miembro de la Comisión de Seguimiento del Centro no será remunerado.